ZARATAMO

Kulturen arragoa *Crisol de culturas*

Meategi eta harrobiak
LAS MINAS Y CANTERAS



Zaratamoko udalerria zuhaitz mota askotako baso trinkoen aberastasunaz baliatu da, bai egurrari, bai fruta-arbolek emandako fruituei etekina atereaz. Baina, lur gainekoa ez ezik, lurrazpikoa ere aberatsa izan da mineraletan eta kareharrietan, bereziki. Zaratamoko udalerriko basoen aberastasun horiek eragin dute meatzeustiapen zein erauzketako enpresak sortzea.

XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen erdialdera arte, Zaratamoko udalerriak meategien ustiapenerako emakidak izan zituen. Sasoi horretan eta eskualde horretan, ia meategi guztiak burdin-mearenak ziren. Askotan, indusketa txikiak ziren kanpoaldean, gaur egun, ia ezagutezinak. Beste batzuetan, burdin-meategi txikiak lur-azalean (txirterak, mea-zain txikiak eta abar), kareharrietan txertaturik, denboraren poderioz harrobiak bihurtu zirelarik. Hori izan zen, seguru asko, "Carnaval" emakidarekin gertatu zena. Garai batean, meategi emakida izan zen eta behin burdin-mea agortu ondoren "Atxeta" kareharrizko harrobi bihurtu zen. Harrobi hori, Burbustu eta Gutiolo auzoen artean kokatuta dago eta aurreko mendearen laurogeita hamargarren hamarkadan itxi zen azken harrobia izan zen.

Los montes de Zaratamo no solo han sido ricos en plantaciones de diversas especies de árboles, que han dado lugar a frondosos bosque de los que se ha aprovechado y rentabilizado la madera, o los frutos de los árboles frutales, también el subsuelo ha sido rico en minerales y en piedra caliza, que ha generado riqueza a través de la creación de empresas mineras y extractivas. Desde finales del s. XIX hasta mediados del s. XX, todo el término municipal de Zaratamo tenía concesiones mineras. En esa época y en esa zona, la práctica totalidad eran de minas de hierro. Lo que ocurre es que en muchos casos eran pequeña excavaciones a cielo abierto que hoy en día serían prácticamente irreconocibles. En otros casos, pequeñas minas de hierro bastante superficiales (chirteras, pequeños filoncillos, etc.) que armaban en calizas, pasaron a convertirse con el tiempo en canteras que es lo que probablemente ocurrió con la concesión "Carnaval", que en un tiempo fue concesión minera y que una vez agotado el mineral de hierro se convirtió en la cantera de caliza Atxeta, situada entre los barrios de Burbustu y Gutiolo, y última cantera en explotación que cerró en los años noventa del siglo pasado.



Zaratamo, herria
ZARATAMO, EL PUEBLO



Juan Ramon Iturriza Zabala euskal historialariak eman zigun Zaratamo herriaren kokapenari buruz zenbait xehetasun, XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasieraren artean idatzitako *Historia General del Vizcaya* lan trinkoan: "En montaña alta, al Occidente de las eminencias de Upo, tiene situación el pueblo de Zaratamo, que denota eco, distante una legua crecida de Bilbao".

Zaratamoko udalerria Nerbioi-Ibaizabal eskualdean dago. 9,9 km²-ko azalera du eta 173 metroko altuera. Zirku-itxurako lur-eremu batean kokatuta dago. Lur-eremu horren mugak hauexek dira: mendebalde eta iparraldetik Nerbioi eta Ibaizabal ibaiak, eta hego-sartalde eta hego-mendebalde aldetik, Artanda eta Upo mendien gailurrek osatzen dituzten isurialdeen banalerroak.

Eremu biribil itxuragabetu hori ez da guztiz ixten mendebalde aldean; hantxe, Emandotroka errekak Nerbioi ibaian isurtzen ditu urak eta iparraldean Txarrota erreka Ibaizabalen ibairatzen da.

Noiztik dago gizon-emakumeen lorratzik inguru honetan? Zaratamoko San Lorentzo elizan antzinako bi hilarri daude. Bietariko bat, Kristo aurretiko mende bat eta Kristo osteko mende baten inguruan, bertan zegoen herri baten isla izan liteke. Hilarri horretan, lauki bikoitz baten barruan, oso soila den irudi antropomorfiko baten burua izan litekeena ikus daiteke. Bigarren hilarriak gurutze-formako irudi bat agertzen du. Goitik behera eta ezker-eskuma lerro paralelo bikoitz batzuek zeharkatzen dute, harriaren erdialdean gurutzatzen direlarik. Hilarri honek ere, lehenaren antzera, ez du inskripziorik, baina neurriz zein dekorazioz, inguruan latinez idatzita agertu ziren beste batzuen berdina da. Azken horiek Manuel Gomez Moreno jaunak gure Aroko II-III mendekotzat jo zituen.

Juan Ramón de Iturriza y Zabala en su obra *Historia General del Vizcaya*, escrita entre finales del s. XVIII y principios del s. XIX, nos da referencias sobre la localización geográfica de Zaratamo: "En montaña alta, al Occidente de las eminencias de Upo, tiene situación el pueblo de Zaratamo, que denota eco, distante una legua crecida de Bilbao".

El municipio de Zaratamo se encuentra situado en la comarca de Nerbioi-Ibaizabal, con una superficie de 9,9 km² y 173 m de altitud. Se asienta sobre un terreno con forma de circo, comprendido entre los ríos Nervión e Ibaizabal, que forman sus límites Oeste y Norte, respectivamente, y las cumbreras divisorias de aguas de los montes Artanda y Upo que forman sus límites Sureste y Suroeste.

Esta especie de círculo deformado no se cierra del todo en su zona Oeste, donde el arroyo Emandotroka desemboca en el río Nervión, y en su zona Norte, donde el arroyo Txarrota desemboca en el río Ibaizabal.

¿Desde cuándo existe presencia humana en este lugar? Existen dos lápidas en la iglesia parroquial de San Lorenzo de Zaratamo. Una de las lápidas podría ser el reflejo de una población indígena asentada en torno a los siglos I antes de Cristo y I después de Cristo. En esta lápida dentro de un doble recuadro, se observa lo que podría ser la cabeza de una figura antropomórfica muy simplificada. La segunda lápida ofrece un motivo cruciforme. Esta surcada de arriba abajo y de derecha a izquierda por unos dobles trazos paralelos que se intersecccionan cerca del centro de la piedra. Al igual que en la primera, esta lápida tampoco tiene inscripciones, pero es idéntica en tamaño y decoración a otras que aparecieron en lugares cercanos que poseen textos latinos y que fueron datadas por Manuel Gómez Moreno como de los siglos II-III de nuestra Era.



Basoak
LOS BOSQUES



Basoek betetzen dute Zaratamoko azaleraren zatirik handiena eta udalerriko mendi aldeko eremu aldapatsuenetik hedatzen dira. Eremu horrek udalerria inguratzen du. Mota eta Artanda mendietako maldetan hasi, Upoko maldetatik jarraituz, udalerriko hego-ekialde eta ekialdeetako maldetatik barrena Arkotxako auzoraino jaisten da. Baso horien artean, aldatsa leuntzen den aldeetan, belardiak eta larreak tartekatzen dira.

Baserri inguruetan, eremu txikiagoetan bada ere, badira soloak eta arlo landuak, gehienbat, baserrietan egiten diren nekazaritza lanekin lotuta.

Baso horiek, antzina, bertako zuhaitzek osatzen zituzten: haritzak, arteak, pagoak, gaztainondoak, urkiak, sahatsak, lizarrak, intxaurrondoak… Gaur egun, zuhaitz mota horietako eredu ederrak ditugu oraindik, baina apurka-apurka pinudiez, gehienbat, eta eukaliptoez ordezkatuak izan dira.

Toponimiak ondo baino hobeto jaso du Zaratamo udalerriko basoen osaketa hori. Lurralde horretan bizi izan den gizataldeak ororen leku horiek izendatu behar izan dituenean, basoak osatzen zituzten zuhaitz motetan oinarritu zen. Horrela, ba, era honetako izenak ditugu udalerriko baso eta aurkintzak izendatzeko: Amestui, Altzeta, Aretxikerra, Artetagana, Gaztañeta, Intxaurreta, Lexarrondo, Madariaga, Makatzagabarrena, Pagatza, Sagatzeta, Sagardui eta beste.

Los bosques ocupan de manera mayoritaria el suelo del término municipal de Zaratamo. Se extienden por la zona montañosa, ocupando la zona de más pendiente, que circunda el municipio y que van desde las laderas de los montes Mota y Artanda, siguiendo por las laderas del monte Upo, continuando por las laderas del límite Sureste y Este del municipio, descendiendo hasta el barrio de Arkotxa, intercalándose algunas pequeñas áreas destinadas a prados y pastizales coincidiendo con las zonas de pendientes más moderadas.

Estos bosques, antiguamente estaban cubiertos por especies autóctonas de robles, encinas, hayas, castaños, abedules, sauces, fresnos, nogales… de los que hoy quedan buenas muestras, pero que paulatinamente han sido remplazados por plantaciones de pinos, en su mayoría, y eucaliptus.

Esta composición de los bosques del municipio viene explicitada en su toponimia. Abundan los nombres que se basan en las diferentes especies de árboles que los poblaban. Así encontramos, denominaciones de bosques y parajes dentro del municipio de Zaratamo como: Amestui, Altzeta, Aretxikerra, Artetagana, Gaztañeta, Intxaurreta, Lexarrondo, Madariaga, Makatzagabarrena, Pagatza, Sagatzeta, Sagardui y otros.



Euskara
EL EUSKERA

Toponimiaren azterketaren bidez, berehala konturatzen gara Zaratamoko elizatean finkatutako gizataldeak hitz egin duen hizkuntza eta, historian zehar komunikatzeko erabili duen hizkuntza euskara izan dela. Toponimo gehienak, hau da, errekak, mendiak, haranak, larreak, basoak, etxeak, auzoak eta abar izendatzeko erabili zituzten lekuizenak euskal toponimoak izan dira, gaztelaniazko toponimo berri gutxi batzuk izan ezik.

Zaratamoko bizilagunen hizkuntza euskara zela eta, era berean, gaztelaniaren ezagutza urria zutela frogatzeko pasarte bitxia bezain argia daukagu: Eusebio Mariano Azkueren ziurtagiri bat. Azkue jauna Zaratamoko elizatearen idazkaria izan zen eta bere ziurtagiri baten dioenez, Aldundiak 1832ko martxoaren 31n ariketa militar eta obedientzia itsuari buruz igorri zuen gutuna euskaraz irakurri eta azaldu (ahots ulergarriaz) behar izan zien Udaleko kideei eta herritar armadunei.

Interesgarria da, bestalde, aurreko mendearen hogeiko hamarkadan, Arkotxa auzoan erabiltzen zen hizkuntza euskara zela baieztatzea.

Irakaskuntzako Ikuskatzailetza Bulegotik 1920ko martxoaren 31n jakinarazpen bat igortzen diote Zaratamoko alkate-udalburuari hauxe eskatuz: "a la mayor brevedad se sirva manifestar a esta Oficina cual es la lengua usual en el barrio de Arcocha, de ese Municipio, si el euskera o el castellano, con el objeto de poder fijar la categoría en la que debe ser comprendida la nueva escuela".

Zaratamoko alkateak apirilaren 22an honako erantzuna bidaltzen du: "En contestación a su atenta carta, tengo el gusto de notificarle que, la lengua dominante en el barrio de Arcocha es el 'euskera'".

Kasu horretan, auzoaren ohiko hizkuntza ez zen gauza hutsala edo eta estatistika hutsa, horrek atzean irakaskuntza eredu bat edo beste baitzekarren.

Lo primero que se puede comprobar a través del estudio de la toponimia es que la lengua que se ha hablado y en la que se ha comunicado la comunidad radicada en la anteiglesia de Zaratamo, a lo largo del tiempo, ha sido el euskera. La mayor parte de los topónimos, esto es, de las denominaciones que los nativos daban a los lugares comunes: ríos, montes, valles, prados, bosques, casas, etc. son mayoritariamente topónimos eusquéricos, exceptuando unos pocos neotopónimos castellanos.

Como curiosidad que ratifica que el euskera era lengua de uso, así como del desconocimiento o poco conocimiento del castellano por parte de la población de Zaratamo, sirva el certificado de Eusebio Mariano de Azcue, secretario municipal de esta anteiglesia, sobre haber leído y explicado en euskera (en voz inteligible), al Ayuntamiento de la localidad y a sus Paisanos Armados, la circular de la Diputación de treinta y uno de marzo de 1832, sobre la realización de ejercicios militares y de obediencia plena.

Resulta interesante comprobar que la lengua de uso en el barrio de Arkotxa en los años veinte del siglo pasado también era el euskera

El 31 de marzo de 1920, desde la Oficina de la Inspección de Enseñanza se envía una comunicación al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zaratamo, donde se le insta a que "a la mayor brevedad se sirva manifestar a esta Oficina cual es la lengua usual en el barrio de Arcocha, de ese Municipio, si el euskera o el castellano, con el objeto de poder fijar la categoría en la que debe ser comprendida la nueva escuela".

El día 22 de abril el Alcalde de Zaratamo envía la siguiente respuesta: "En contestación a su atenta carta, tengo el gusto de notificarle que, la lengua dominante en el barrio de Arcocha es el 'euskera'".

En este caso el tema de la lengua habitual del barrio no era una cuestión menor, ni siquiera de mera estadística, ya que implicaba un modelo de educación u otro.





©Testuak: JON AJURIA

Airetiko argazkia: 2009-04-23 eta 2009-05-29 egunen bitartean egindako hegaldia / Foto aérea: vuelo efectuado entre las fechas 23-04-2009 y 29-05-2009

00 ZARATAMO Ortofoto.indd 1 07/03/12 22:50